

GURE ENPRESAREN FUNTSEZKO BALIABIDEAK

1. BALIABIDE FISIKOAK

Baliabide fisikoen artean, lokalari dagokionez, Antiguon dagoen 170 m²-ko lokal bat alokatuko dugu. Bertan, arropa ekoiztu eta salduko dugu hasiera batean, beste lokal edo tailer bat alokatzeko nahiko dirurik izan arte. Lokalak erreforma batzuk beharko ditu, baino nahikoa dugu neurri horrekin.

Bestalde, ordenagailu bat izango dugu web orritik egiten dituzten eskaerak ikusteko. Eta ekoizteko materialari dagokionez, ACTECO elkartetik jasoko dugu, bigarren eskuko arropa biltzen baitu. Josteko makinak ere izango ditugu, lokalean egongo dira, arropa ekoizteko.



2. BALIABIDE INTELEKTUALAK

Gure negozioan josteko gaitasuna duten pertsona batzuen beharra izango dugu, arropa ekoiztu ahal izateko.

3. GIZA BALIABIDEAK

Lehenik eta behin, taldekideok lan egingo dugu geure negozioan; gutako bik salmentan eta bezeroentzako arretan lan egingo dugu. Beste batek biltegiaren ardura jasoko du, salgaiak jasotzeaz, biltegitratzeaz eta bidaltzeaz arduratzen da, batez ere. Laugarrena sare sozialekin lan egingo du; hau da, bideoak grabatuko ditu dendaren kontuarentzako eta sareen bidezko eskaerak maneiatuko ditu. Eta azkena logistikaz arduratuko da. Ondasunak hornidura-kate batean biltegitratzea eta bidaltzea planifikatu, kudeatu eta kontrolatzen duen jardura da. Bere helburu nagusia lehengaien edo produktuen mugimenduekin lotutako eragiketa guztiak ahalik eta modu eraginkorrean kudeatzea da. Gutako batek ere diseinuak marrazteko ardura hartuko du. Gainera, nahiz eta hasieran soilik bostak izan, diru pixka bat aurreztean, hiru langile kontratatuko ditugu; bi jostun eta gidari bat. Jostunak salduko dugun arropa jostez arduratuko dira, eta gidariak lehengaiak ekartzeko betebeharra izango du.

4. FINANTZA-BALIABIDEAK

Hasieran ez dugu diru askorik izango, gure enpresa sortu berri dugulako, eta alokairu-gastuekin, materialekin, enplegatuekin eta gainerakoekin aurrekontu txikia izango dugu akzioak erosteko, baina denboran zehar kapital gehiago lortuko dugu akzioak erosi eta inbertitu ahal izateko. Bakoitzak 1.000€ aurreztuko ditu gastu guztiak ordaindu ahal izateko, eta, gainera, utziko duguna etorkizunean gauzak ordaintzeko balio dezake.